



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats
(Nafarroa)

Basaburuko Udalean 2024ko Irailaren 9an arratsaldeko 19:00etan ondoren zehazten direnak biltzen dira Jauntsaratsen baso sorgindua egiteko obraren esleipena irekitzeko.

Parte hartzaileak; Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Camino Jaso eta Irati Lure, Basaburuko Udaleko idazkaria den Lucia Beloquiren laguntzarekin.

Gai zerrendan dagoen gai bakarraren azterketarekin hasten dira bildutakoak:

Jauntsaratxen baso sorgindua egiteko obraren esleipena. 2 gutun azalaren balorazioa eta 3. gutun azalaren irekiera

Irailaren 2an 2. Gutun azala ireki ondoren proiektua egin duen teknikariak, hots Camino Jasok aurkeztutako empresa bakarraren memoria, obren planifikazioa eta ingurugiro neurriak baloratu ditu eta horren inguruan egindako txostena aztertzen dute bildutakoak

Bi enpresek aurkeztu dute proposamena obra esleitzeko, alde batetik Repoblaciones Etxarte S.L-ek eta bestetik Amets Gardeazabalek.

Balorazio hau Mediodes empresako beste kide batek egin du, Joaquin Garcia Purroik beste balorazioak egin dituen Camino Jaso teknikariak aurkeztuako empresa bateko ordezkaria ezagutzen duelako, hortaz txostenaren azalpenak emango ditu baina balorazioan abstentziora joko du.

Txostenaen jasotzen 2 gutun azalaren balorazioa. Alde batetik Repoblaciones Etxarte enpresaren balorazioa aztertzen dute bildutakoek. Txostenaren arabera aurkeztutako memoria xumea da ez ditu lanak gehiegi deskribatzen, hortaz 4 puntuko balorazio jasotzen du atal honetan. Bestetik obraren planifikazioak ez duenez ezer aipatzen 0 puntu jasotzen ditu bigarren atalean eta azkenik eta ingurugiro neurriekin lotutako balorazio 1 puntukoa da, memorian ez dituelako zehazten ez deskribatzen, zertzelada batzuk bakarrik agertzen dira memorian zehar.

Bigarren empresa edo proposamena, Amets Gardeacabalek aurkeztutako da. Balorazio honen kasuan altuagoa da balorazio txostenaren arabera, teknikoak adierazten du bertan, obraren ezagutza nabarmena dela, nahiz eta motz deskribatu, egin behar diren lan guztiak zerrendatzen ditu, hortaz memoria deskriptiboaren atalean 9 puntu jasotzen ditu, obraren planifikazioa ere ontzat ematen du teknikoak egokia iruditzen zaio eta naturaren denborak errespetatuz egiten du, hortaz 4 puntu jasotzen ditu atal honetan. Bukatzeko eta ingurugiro neurriekin lotuta aurkeztutako proposamenean zehazten du eguneroko garbiketa egingo duela, altueran sortzen diren hondakinak jasotzeko zuhaitzekin modu errespetatsuan egingo ditu eta beste

ekintza zehazten ditu aukeztako agirian, hortaz 5 puntuko balorazioa ematea ontzat ikusten dute bildutakoek.

3 gutun azalaren irekiera egiten dute jarraian bildutakoek. Kasu honetan Repoblaciones Etxarte empresak ongi aurkezten ditu eskatutako 4 dokumentuak, aldiz Amets Gardezabak bakarrik irizpide sozialen dokumentua bidali du eta aurrekontua, berme epea eta obra egiteko epea PLENA plataformako taula batean jasota utzi ditu, baina zehaztu gabe berme epearen kasua 5 urte osotara edo 5 urte gehiago diren obraren 3 urteko berme epea kontutan hartuz eta obra egiteko epearen murrizketaren inguruan, jarritako kopurua (160) zer den.

Aurrekontua 32.800 eurokoa izango dela adierazten du PLENako taulan.

Hortaz bildutakoek gaia eztabaidatu ondoren eta ikusita eskatutako dokumentazioa ez duela aurkeztu ezin zaiola baloratu gutun azal hau ondorioztatzen dute, hortaz 2 gutun azaleko 18 punturekin gelditzen da Amets Gardezabal.

Kasu honetan lehen aipatu bezala Camino Jaso balorazio epaimahian parte hartzen duen teknikariak abstentzioara jo du.

Jarraian Repoblaciones Etxarte S.L empresak 3. Gutun azalean aurketutako dokumentazioa aztertzen dute bildutakoek

-Proopsamen ekonomikoa, obraren aurrekontua BEZ kanpo pleguaren arabera 33.320,08 eurokoa da, Repoblaciones Etxarte empresak aurkeztutako aurrekontua 29.321,69 eurokoa da BEZ kanpo, hortaz empresa bakarra izanik. 30 puntu jasotzen ditu atal honetan.

-Obraren berme epearen luzapenaren inguruan, hiru urteko berme epeari 2 urte gehitzen dizkio hortaz osotara 5 urteko berme epea izango luke obrak eta urte bakoitzeko luzapenak 5 puntu ematen dituenek, osotara 10 puntu lortzen ditu atal honetan.

- Irizpide sozialen atalean adierazten du %5eko kontratazioa egingo duela Empleo Zentroekin, hortaz 2 puntu jasotzen ditua atal honetan.

-Bukatzeko obra egiteko epearen murrizketa proposamenaren inguruan, obra 8 hilabetetik 4 hilabetera jeisten du eta hortaz eta empresa bakarra izanik 30 puntuko balorazioa jasotzen du atal honetan.

Osoz hortaz, 2. Gutun azalaren balorazioan 5 puntu jasotzen ditu eta 3 gutun azalarean 72 puntu.

Osoz hots 77 puntuko balorazioa onartzen diote bildutakoek Repoblaciones Etxarte S.L. empresari.

Obraren esleipena Minerva plataforman baimena jaso ondoren egingo da batzarrean.

Eta gai gehiagorik ez dagoenez bilera amaitutzat ematen dute bildutakoek, eguerdiko 19:30etan, ni idazkarian naizen aldetik hala ziurtatzen dut.

Izp: Santos Etxegia Oronoz

Izp: Xabier Azpiroz

Izp: Irati Lure

Izp: Camino Jaso

